

Etxean Kontu Kantari 2017-04

Bat, Patxi Parrat

Itziar Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarteak.

Bat, Patxi Parrat.
Bi, Patxi ipurdi.
Hiru, Patxik badu diru.
Lau, atsoak agurea nahi dau.
Bost, klask eta klosk.
Sei, etxea bete behi.
Zazpi, etxea bete zapi.
Zortzi, etxea bete zorri.
Bederatzi, etxea bete baratxuri.
Hamar, txakurrak mar-mar.

Atzamarrak kontatzeko jolasa da. Atzamar bakoitza bereizten saiatu.

Errima jokoak eginez, poematxo honen aldaerak egiten saiatu: sardina bakailao, kaketan plost...

Axa-mixa

Zubizarreta, I. (2011). *Jolas Molas*. Galtzagorri elkarteak.

Axa-mitxa zilarra,
joan joan oilarra,
ardi beltzen bilara.
O pitxon, biribilton
txin, txan, txon.

Harrapaketa jolas bati edota ekintza zehatz bati hasiera ematen dion zotz egiteko formula bat da.

Zapi zuri honekin

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri elkarte.

Zapi zuri honekin,
Jolasten gara.
Orain alde batera,
Gero bestera.
Zapi zuria lurrera,
Zapi zuria airera.
Orain alde batera,
Gero bestera.

Soka saltoan aritzeko aproposa da egitura hau.

Olatuak eginez mugituko da soka eta haren eraginean saltoak.

Zapia lurrera botatzen da kantuak agintzen duenean, jaso egiten da, berriz, haren aginduan.

Izarrak itzali dira

Zubizarreta, I. (2011). *Jolas Molas*. Galtzagorri elkarte.

Izarrak itzali dira
ilargia lo dago,
ibaira eror ez dadin,
nork eusten dio?
Kontuz ilargi!
Nork eusten zaitu?
Eroriko zara
loak hartzen bazaitu.

Poema hau errezeitatzeko erabiliko da batik bat, gorputz mugimenduak erantsi daitezke errezeitaldia bitartean.

Amona mantangorri

Zubizarreta, I. (2011). *Jolas Molas*. Galtzagorri elkarte.

Amona mantangorri,
gorri-gorri.
Hegoak irekita
hegan egin.

Poematxo hau harrapaketa jolas baten leloa da. Amona mantangorriak hegan dabilela baten bat harrapatuko du, hura izango da hurrengoa harrapatzen.

Akerraren adarraren

Zubizarreta, I. (2011). *Jolas Molas*. Galtzagorri elkarte.

Akerraren adarraren
okerraren okerra;
nik banian, hik ez huen
akerraren beldurra.
Zezenaren adarraren
zorrotzaren zorrotza;
nik banian, hik ez huen
zezenaren beldurra.
Behiaren esnearen
gozoaren gozoa;
nik banian, hik ez huen
esne ezti, ona.

Errezitatu bitartean keinuak egin.

Jolasa bihurtu: ezetz ni baino hobeto eta azkarrago esan.

Ni ez naiz xomorroa

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri elkarte.

Ni ez naiz xomorroa

Izanagatik lau begi.

Zatoz, zatoz nirekin

Ez zoazela ihesi.

Tran la rai lai lai...

Bat, bi, hiru... kuku

“Oilo itsua” jokoa egiteko kantua da honako hau.

Bat erdian izango da begiak estalita, besteak bere inguruan arituko dira kantari eta bueltak emanaz, kantua bukatu arte.

Azkenean, “oilo itsuak” ukituz asmatu beharko du zein harrapatu duen

Akerra ikusi dugu

Itziar Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Akerra ikusi dugu baratzean jaten,
makila ikusi dugu aker hori jotzen.
Makilak akerra, akerrak artoa akerra ken
Baratzetik akerra ken, ken, ken,ken,ken.

Sua ikusi dugu makila hori erretzen,
ura ikusi dugu, su hori itzaltzen.
Urak sua, suak makila, makilak akerra, akerrak artoa,akerra ken.
Baratzetik akerra ken,ken,ken,ken,ken.

Behia ikusi dugu, ur hori edaten,
soka ikusi dugu, behi hori lotzen.
Sokak behia ,behiak ura, urak sua,
suak makila, makilak akerra, akerrak artoa, akerra ken.
Baratzetik akerra ken, ken, ken,ken,ken.

Xagua ikusi dugu, soka hori etetzen,
katua ikusi dugu, xagua harrapatzen.
Katuak xagua, xaguak soka, sokak behia
behiak ura, urak sua, suak makila
makilak akerra, akerrak artoa
akerra ken.
Baratzetik akerra ken, ken,ken,ken,ken

Autoan kantatzeko aproposa, ezetz nahastu gabe kantatu...

Errepikapen bakoitzaren ondoren beste elementu bat sartzen da, gero bestea...

[Azeria eta zazpi oilaskoak](#)

Zubizarreta, I. (2010). *Jolas Molas*. Galtzagorri elkarte.

Hara nora joan diren zazpi bat oilasko,
azeriari iheska horko basoraino.

Hara zer gerta zaion zazpigarrenari,
baso erdi-erdiko zuloan erori.

Hara zer gerta zaion seigarrenari,
sasi arteko arantzetan hartu duela min.

Hara zer gerta zaion bosgarrengeari,
txoria izan nahi, baina hegan ez du ikasi.

Hara zer gerta zaion laugarrengeari,
beldur handia dio ehiztariari.

Hara zer gerta zaion hirugarrengeari,
zizarea jan nahi du, baina aurkitu ezin.

Hara zer gerta zaion bigarrengeari,
putzura erori eta ez daki igeri.

Hara zer gerta zaion lehenengeari,
gau on, azeri jauna, eta etxera itzuli.

A. Lertxundi

Antzerki bat egin daiteke olerki hau erabiliz.

[Eskuak eskuari](#)

Zubizarreta, I. (2011). *Jolas Molas*. Galtzagorri elkarte.

Eskuak eskuari
kriskitin–krasketin.
Hatz bat barrez irri, kikiriki!
Hatz bat saltoka, kikiraka!
Hatz bat orain txistu, kikiriku!
Hatz bat sarritan lo, kikiriko!
Hatz bat beti gose, kikirike!

Eskuak astindu eta atzamarrez kriskitinak egin.